

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

189/2025 Foru Agindua, ekainaren 13koa, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio Barrundiako Udalarena den "Monte Alto" izeneko onura publikoko 469 zenbakiko mendiaren mugaketa eta mugarritze prozedurari, eta xedatzen baita hasiera batean iraungitako prozeduraren egintza eta izapideei eustea

Maiatzaren 29ko 160/2025 Foru Aginduaren bidez, iraungitatzat jo zen Barrundiako Udalarena den eta udalerrri horretan dagoen "Monte Alto" izeneko onura publikoko 469 zenbakiko mendiaren mugaketa eta mugarritze prozedura, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. eta 95. artikuluetan eta Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 28. artikuluan xedatutakoarekin.

Ondorioz, 2025eko ekainaren 4an, Mendi Zerbitzuak Barrundiako Udalarena den eta udalerrri horretan dagoen "Monte Alto" izeneko onura publikoko 469 zenbakiko mendiaren mugaketa eta mugarritze prozedurari hasiera ematea proposatu du, 208/25 espediente zenbakiarekin.

Nahitaezko txostenak aztertu dira, eta kontuan hartuta zer xedatzen duten Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. eta 95. artikuluek eta Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren dagozkien artikuluek, eta Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 legegintzaldirako zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak —Diputatu Nagusiaren ekainaren 28ko 78/2024 Foru Dekretuaren bidez aldatua— ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Abiaraztea eta 208/25 espediente zenbakiarekin izapidetzea Barrundiako Udalarena den eta udalerrri horretan dagoen "Monte Alto" izeneko onura publikoko 469 zenbakiko mendiaren mugaketa eta mugarritze prozedura.

Bigarrena. Adieraztea Barrundiako Udalarena den eta udalerrri horretan dagoen "Monte Alto" izeneko onura publikoko 469 zenbakiko mendia mugaketa egoeran dagoela. Adierazpen horrekin ez da murrizketa berezirik ezartzen.

Hirugarrena. Agintzea iraungitako prozedurako egintza independenteek ondorioak izan ditzatela eta egintza horiek espedienteetan gehi daitezela, besteak beste, interesdunek aurkeztutako dokumentazioa dagozkien eskubideak egiaztatzeko, eta 1990eko urriaren 26an, ekainaren 28an eta 2001eko irailaren 14an egindako lur neurketen jardunaldiak.

Laugarrena. Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan eta otsailaren 22ko 485/1962 Dekretuaren bidez onetsitako Mendiei buruzko Arautegiaren 120. eta 121. artikuluetan xedatutakoaren arabera, interesdunei jakinaraztea espedientea Barrundiako Udalaren bulegoetan (Boilar kalea, 12, 01256 Ozeta) egongo dela, iragarki hau argitaratu eta hurrengo hamabost egun baliodunetan, aztertu ahal izateko. Iragarki hau argitaratu eta hurrengo hogeita hamar egun baliodunetan zuzenbidearekin bat datozen erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, bai telematikoki, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez edo beste administrazio publiko baten erregistro elektronikoan, bai Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, 01001 Vitoria-Gasteiz), bai Barrundiako Udalaren bulegoetan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozeinetan.

Bosgarrena. Jakinaraztea neurketaren aurka erreklamatu ahal izango dutela soilik pertsonalki edo ordezkarien bidez egintza horretara joan direnek, eta, jabetzari buruzko erreklamazioei dago-kienez, ohartaraztea haietan adierazi behar dela haien bidez administrazio bidea amaitzeko asmoa dagoela, bide judizial-zibilaren aurretiko izapide gisa.

Seigarrena. Otsailaren 15eko 4/2023 Foru Arauak gehitutako Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 28. artikulua 6. apartatuan ezarritakoaren arabera, mugaketa prozedura ebazteko gehieneko epea 24 hilabetekoa da, eta epe hori igarotzen bada dagokion ebazpena eman eta jakinarazi gabe, iraungi egingo da eta jarduketak artxibatzea erabakiko da.

Zazpigarrena. Ebazpen hau prozedurako interesdunei jakinaraztea eta ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 13a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
NOEMI AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria
DAVID FERNANDEZ SARABIA